

## EUSKALTZAINDIAREN GOMENDIOAK ETA ERABAKIAK

### Euskaltzainburuaren hitzak

Eskuetan duzu, hirugarren aldikoz, Euskaltzaindiak azken hilabetee-tan hartu gomendioak biltzen dituen liburuxka. Euskaltzaindiak ez ditu gomendio hauek hartzen, beharbada, batzuek nahiko luketen abiadan, euskaltzaleen artean denetarik baitago: astiroago joan behar dela eta horrenbeste erabaki hartzea komeni ez dela uste dutenak, batetik eta, bestetik, berriz, aski motel gabiltzala pentsatzen dutenak ere.

Euskara batua egiten ari gara edo, hobeki esan, orain dela 25 urte eman ziren garrantzizko urrats haiek sendotzen eta indartzen, hain munta handia ez duten bestelako gomendioak proposatzen ditugunean. Esan bezala, gure asmoa da denon artean eztabaidatzea puntu hauek.

Hirugarren liburuxka honetan, dena dela, orain arte egindakoaren berri eman nahi nuke, gogora ekarriz zein diren Euskaltzaindiak eman dituen gomendio eta erabakiak (aurreko bi liburuxketan biltzen direnak, alegia):

- *Letra larrien erabilera euskaraz* (1990.10.29).
- *Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz* (1991.04.26).
- **Bat eta Batzuk-en deklinabidea** (1991.05.31).
- **Arabera/arauera** (1991.07.28).
- **Iritzi/eritzi** (1991.07.28).
- *Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri* (1991.09.27).
- *Ordinalak* (1991.10.21).
- *Zenbakien idazkeraz* (1992.02.28).
- *Zenbakien deklinabideaz* (1992.02.28).
- **Baitu / bait-du / bait du** (1992.05.29).
- **Aurrealde / aurrekalde; atzealde / atzekalde** (1992.05.29).
- **Arazi / erazi** (1992.06.26).
- *Hitz elkartuen osaera eta idazkera. Euskaltzaindiaren gomendio arauak* (1992.06.26).

Ondoko orrialdeetan zehazten dira beste zenbait gomendio. Orain zure txanda da. Egiteko oharrrik baldin baduzu edo hemen esaten denarekin bat ez bazatoz, 1993ko uztaile-raino duzu astia zure oharrak guri

helarazteko, hemengo puntu hauek, oraingoz *gomendio*, 1994an egingo den batzar ireki batean bihur baitaitezke *erabaki*, euskaltzaleek hala uste badute behintzat.

*Jean Haritschelhar*  
(1992ko ekainaren 27a)

## I

### guz(t)i hau / hau guz(t)ia

Erakusle bat *guzti* hitzarekin egokitzen denean, euskal testu zaharretako joskeran erakuslearen ondoren etortzen zen beti *guzti*, eta *hau guzior*, *hau guztiau* bezalako moldeak alde batera utzirik, *guzti*-k artikulua eta erakuslearen kasu atzizki bera hartzen zuen, adibidez:

*Ethorriko dirade gauza hauk guziak nazione hunen gainera* (Lç Mt 23,36).

*Liburu hau guztia duk bi partetan berezten* (Etxeberri Z MD/5).

*Egun a guztia bapere bekatu gabarik emoteko* (Añib EL2 90).

*Teresak konbentu barri oneek guztiok [...] eginda, bialdu zituban bere semiak eta alabak Pranzijara* (Bartolome II 296).

Orobat erakuslea izenordain gisa ari denean:

*Baina haur guzia egin izan da konpli litezenzat Profetén Skripturák* (Lç Mt, 26, 56).

*Orietan guzietan bat banaka konsiderazio andiarekin pensatuaz* (O. de Arin 70).

*Au guzia dakizula, zorakeria oriekiñ zabilta?* (Agirre A III 530).

*Ez oraino horiekin guziekin etzuden merezi zeruko zoriona* (Duhalde 172).

Geroago, Hegoaldean, *guzti hau*, *guzti haietan* bezalako joskerak agertzen hasi ziren. Lehen agerraldia, XVIII. mendean bakarra, antza denez, Ubillosena da: *Zer esan nai du guzi onek?* (199). XIX. mendean eta XX.aren lehen erdialdean gero eta gehiago ikusten dira joskera hauek, eta azken urteetan, jakina denez, gutxi dira joskera zaharrari eusten diotenak. Azpimarratu behar da aldakuntza hori Hegoaldean soilik gertatu dela, eta ondorioz, puntu honetan tradizio zaharrean zegoen batasuna hautsia gertatu dela. Hortaz, Euskaltzaindiak gogorarazi nahi du *hau guztia*, *bide hartan guztian*, *horiekin guztiekin* eta *kidekoak* hobestekoak

direla batasunaren izenean. Eta orobat *gauza hauek guztiak* eta honen kidekoak.

Hala ere, *hau guztia* eta *hori guztia* formekin batera *hau guztiau* eta *hori guztiori* ere oso bidezkoak dira (ez ordea, \**gizonau* bezalakoak, jakina). Halaber, *hauek guztiok*, *horiek guztiok*, (*gauza*) *hauek guztiak*, *horiek guztiak* eta *haiek guztiak* formak.

(*Euskaltzaindiak, 1992ko maiatzaren 29an onartua*)

## II

### Ene/nere/nire; neri/niri

Euskal pertsona-izenordainen deklinabidean batasuna lortzeko, punturik korapilotsuena, forma indartuen arazoa alde batera utzirik, *ni* ize-nordainaren *noren* kasuari dagokiona da. Euskalki guztietako testu zaharretan kasu horren forma *ene* zen, bizkaieratik zuberorara:

*Arren, ene anda Milia Lasturko, / Mandatariak egin deust gaxtoto* (TAV 3.1.5).

*Ene begiakaz biotzeen artean / Errenkore andiak erne zitean* (TAV 3.1.22).

*Zeren sobera bekatü egin baitüt pensamentüz, hitzez eta obraz: ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiz* (FPrS 1676, 9).

XVII. mendearen amaieran *nere* forma agertzen da, goinafarrerazko testu batean, eta hurrengo mendean urte beretsuetan azaltzen da lapurteraz (1733) eta gipuzkeraz (1739). Geroago, baina mende berean, *nire* forma agertzen da bizkaieraz. Harrezkero, *nire* eta *nere* baztertuz doaz Hegoaldean *ene* forma zaharra, gaur egun batez ere zenbait esapide fosildutan (*ene!* e.a.) erabiltzen dena. Iparraldean, aldiz, *ene*, *nere* bezain erabilia da, ahoz nahiz izkribuz.

Mende honetan, *nire* aldaeraren aldeko joera nabaria gertatu da Hegoaldean. Joera hori aurreko belaunaldietan hasi zen nabarmentzen, Azkuek bere "Gipuzkera osotuan" *nire* forma proposatu zuenez gero, eta erabat normala da Orixegan eta bere belaunaldiko beste hainbat idazle ez bizkaitarren. Bestalde, jakina denez, *nire*-ren aldeko joera hori areagotu egin da euskara batuan. Orobat, ezin ahaztuzkoa da, batasunaren ikuspuntutik, Bizkaia aldeko hainbat idazlek *nire* aldaerari dion atxikimendua.

*Neri*-ri dagokionez, forma berria da, XIX. mendearen erdialdean *nere*-tik analogiaz sortu zena, eta harrezkero batez ere gipuzkerazko idazleek (ez, dena dela, guztiek) erabili dutena; *niri*, aldiz, euskalki guztietan (zuberoraz izan ezik) agertzen da lehen testuetatik hasita. Kasu honetan zahartasuna eta hedadura kontuan harturik *niri* da hobestekoa. *Neri*-ren

arrazoi berberengatik *eni* forma, batez ere zubereroaz erabili dena, baztergarria dirudi.

Hauxe da, hortaz, Euskaltzaindiaren gomendioa: *ni* izenordainaren *noren* kasuan *nire* erabil dadila (eta, noski, *niretzat*, *nirekin*), eta orobat *ene*, maila jasoan bederen; *nori* kasuan *niri* erabil dadila.

*(Euskaltzaindiak, 1992ko irailaren 21an onartua)*

### III

#### Usain/usai, arrain/arra, zain/zai

Bada euskaraz hitz-sail bat euskalki batzuetan **-ain** bukaera, beste batzuetan **-a(i)ñ** eta beste batzuetan **-ai** duena. Horien artean gehien erabiltzen direnak **usain**, **arrain**, eta **zain** eta honen eratorriak (**artzain**, **diruzain**, **ertzain** e.a.) dira. Literatur euskalkiei dagokienez, bizkaieraz, lapurteraz eta zubereraz, eta Baztango eta Nafarroa Behereko testuetan, palatalizazioa gorabehera, **-ain** da hitz horietan betidanik azaltzen den forma; gipuzkeraz eta Goi Nafarroako testuetan, aldiz, **-ai** da lehen testuez gero beti agertzen den aldaera.

1968an euskara baturako ontzat edo eman ziren irizpideen arabera Bizkaian eta Iparraldean erabiltzen diren formak dira, bat datozenean, hobestekoak. Bestalde, harrera aski ona izan dute harrezkero idazleen artean **-ain** amaiera duten aldaerek, azterketa guztiek adierazten dutenez. Salbuespen bakarra **gotzain** da, **gotzai** baino gutxiago erabilia izan dena; nolana ere, Bizkai aldean **gotzain** aldaera aski erabilia dela kontuan harturik, badirudi ez duela merezi **gotzai**-ren kasuan salbuespenik egitea.

*Dohain*-i dagokionez, ez da Bizkai aldean erabili den hitza; hala ere, Iparraldean Leizarragaz gero erabilera zabala izan duenez, Euskaltzaindiaren iritziz honetan ere ez da egoki salbuespenik egitea.

Ez da kasu bera *orain* gramatika-hitzarena, zeren honetan Bizkai-Gipuzkoetan beto *orain* erabili baita; orobat, aldaera hori ikusten da Iparraldeko zenbait idazle zaharrengan, Leizarraga eta Etxeberri Ziburu-koarengan, esaterako, eta beraz, badirudi hori dela hobetsi behar den aldaera.

*Mahai*-ri dagokionez, aldiz, **-n** gabeko forma da zabalduena, Hegoaldeko literatur tradizio guztiak hartzen dituena. Bestalde, Iparraldeko tradizioan ere ez da ezaguna, Materrengan, Axularrengan eta, mende hone-tan, Jean Etxeparerengan bederen aurkitzen baita.

Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren gomendioa: **-ain** eta **-ai** aldaerak dituzten hitzetan **-ain** formak erabil daitezela; hau da, *arrain*, *usain*, *zain*,

(eta honen eratorriak diren **artzain**, **atezain**, **diruzain**, **itzain**, **ertzain**, **gotzain** e.a.), *dohain*, eta orobat, *orain* idatz daitezela euskara batuan; baina beste sail batekoa denez gero *mahai*, eta ez *mahain*, idatz dadila.

*(Euskaltzaindiak, 1992ko abenduaren 19an onartua)*

#### IV

### Nor nahi / nor-nahi / nornahi

*Nor, zer, zein, non, nora, nola* eta gainerako galdetzaileak *nahi* partikularekin elkartzen direnean sortzen diren esapideak berex idazten ziren Hego nahiz Iparraldeko testu zaharretan. Gero, batez ere Hegoaldean baina baita ere Iparraldean idazkera marratxodunak eta, XVIII. mendeaz gero oro har, bi osagaiak batean elkarturik biltzen zituenak, hedatuz joan ziren. Mende honetan, nahiz hiru idazkerak ikus daitezkeen, hitz grafiko bakarra erakusten dutenak asko hedatu dira, batez ere Hegoaldean, eta euskara batuzko testuetan bereziki. Iparraldean ere idazkera hori arrotza ez denez gero, badirudi puntu honetan batasuna lortzeko biderik errazena bi osagaiak batera idaztea proposatzea dela.

Forma horien artean badira bi, *zein* eta *non* lehen osagarritzat dituztenak, arazo nabari bat dakartenak. Izan ere, badira mende honetako testuetan *zeinahi* eta, batez ere, *nonahi* motako idazkerak. Baina *n* bakarreko grafia hauek ez dira erabat hedatu Hegoaldean, eta Iparraldeko idazleen artean ez dira ikusten. Hortaz, eta kontuan izanik Pirinioez iparraldeko testuetan maiz agertzen direla oraindik *non-nahi* eta are *non nahi* idazkerak, badirudi hegoaldekoei, batasunaren izenean, bi *nn*-ei eustea bederen badagokiela, hitzok areago itxuraldatu gabe.

Beraz, hau da Euskaltzaindiaren gomendioa: galdetzaile batez eta *nahi* partikulaz osaturiko esapideak hitz bakar batean idatz daitezkele: *zernahi, nornahi, nornahik, nolanahi, noranahi* e.a. Aldiz, lehen osagaia *n-z, t-z* edo *k-z* bukatzen bada, hitz batean (*nonahi, zenbanahi, nondinahi, nonahitik*), edo marratxo baten bidez bereziak (*non-nahi, zenbat-nahi, nondik-nahi, non-nahitik*) idatz daitezke.

Ikusten denez, gomendio hau idazkera soilari dagokio. Hortaz, *nori-nahi* edo *nornahiri*, esaterako, zein hobetsi, eta kideko auziok, hurrengo batean erabakitzeko uzten ditu Euskaltzaindiak.

(*Euskaltzaindiak, 1993ko urtarrilaren 26an onartua*)



## V

### Nor/nortzuk, zer/zertzuk, zein/zeintzuk

**Nor, zer** eta **zein** galdetzaileak mendebaleko literatur tradizio batean, **-tzuk** atzizki pluralgilea dutela agertzen dira. Azken molde horiek ez dira, ordea, horrela erabiliak izan beste literatur tradizioetan:

*Ezen bazakian hatseandanik Iesusek **zein** ziraden sinhesten etzutenak* (Lç Io 6, 64),

***Zer** dira üdüri hurak?* (Bp I 69),

***Zein** dira Gizunaren laur Ürrenbüriak?* (CatS 35),

***Nork** düte Ordenen eta Tonsüraren emaiteko züzena?* (CatLan 158),

***Nortzuk** dira borondatezko pobreak?* (Cap 83),

*Aen ofizioa leelengoak eta prinzipaleak, **zeintzuk** izan zirean?* (Cap 22).

**Zertzuk**-i dagokionez, ordea, kontua nahasiagoa da. Testu zaharrene-tan badirudi **zer** besterik ez dela agertzen:

***Ze** gauza dira induljenziak?* Cap 67 (kideko joskera 39, 60, 70 e.a.-tan).

***Zer** dira fedeko artikuluak?* Cap 26 (kideko joskera 82.ean).

**Zertzuk**-en lehen agerraldiak hurrengo mendekoak dira:

***Zertzuk** dira angeruak?* Olaetxea 51.

Nolanahi ere, XIX. mendeko bizkaitar klasikoen artean, **zertzuk** baino askozaz gehiago erabiltzen da **zer**:

***Zer** dira erreguelduak?* *Aupatsak esan gurako dozu.* Mg PAb 119.

***Zer** dirian bigiraak.* LB Olq 105.

Azken urteotan, bizkaierazkoak soilik ziren **nortzuk**, **zeintzuk** eta areago **zertzuk** aski hedatu dira euskara idatzian Hegoaldeko zenbait idazleren artean.

Euskaltzaindiak, kontuan harturik forma atzizkidunak (**nortzuk**, **zertzuk**, **zeintzuk**) literatur tradizio jakin bati lotuak daudela, hau gomendatzen du: **nor**, **zer** eta **zein** formei lehentasuna ematea. Ez ditu, ordea, atzizki pluralgileak dituzten formak inola ere gaitzesten. Orokorki duten izaera markatua aitortzen zaie soil-soilik, eta modu horretan —forma markatu gisa esan nahi da— aurkezten, bai eta onesten ere.

Erabili nahi dituenarentzat, forma hauen deklinabideko paradigmak hauek dira: **nortzuk, zertzuk, zeintzuk** (abs), **nortzuek, zeintzuek, zertzuek** (erg), **nortzuei, zertzuei, zeintzuei** (dat), e.a.

*(Euskaltzaindiak, 1993ko apirilaren 30ean onartua)*